

kristalezko ontziak

KARMELE JAIO

glass
containers



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eu

Edizio hau elebiduna da. Karmele Jaioren ipuinak **euskaraz** irakurri nahi badituzu, esteka honetan sakatu, mesedez:

[kristalezko ontziak](#)

Txupa beltza ipuinaren audioa [hemen](#) entzun daiteke.

Eta Karmele Jaiorekin izan dugun bideo-elkarrizketa [hemen](#) dago.

This is a bilingual edition. If you wish to read Karmele Jaio's stories in **English**, please click on this link:

[glass containers](#)

The audio recording of 'Black Leather Jacket' is available [here](#).

You can see our interview with Karmele Jaio [here](#).

KARMELE JAIO

kristalezko ontziak

Ipuinak

Ipuinok lehenago bilduma hauetan argitaratu ziren:

'Zu bezain ahul'; 'Ez naiz ni'.

Booktegik Elkar argitaletxeari ipuinak berplazaratzeko baimena eskertu nahi dio biziki.

HITZAURREA

Hiru bikote, adin ertainekoak. Hausnartzen ari diren pertsonaiak dira, bizi izan dutenaz, bizi dutenaz eta bizitzeko dutenaz. Bikote bakoitzak bi seme-alaba ditu, baina bakoitzarekin istorio desberdin batean murgilduko da irakurlea. Izan ere, era ederrean kontatzen ditu Karmele Jaiok *Azukrezko Madaritzuak*, *Kilkerra* eta *Txupa Beltza*, hiru narratzaile mota erabiliz.

Orri gutxiren bueltan, hiru familien bizimoduetan sartuko da irakurlea, eta zer pentsatua emango dio irakurritakoak. Ez da erraza haurrak heztea, ez da erraza bizitzako egoera berrietara ohitzea, ez da erraza urteek aurrera egin ahala bikote bateko txispa eta sexu grina mantentzea. Gezurrak esaten dituzte batzuek, egiak ezkututzen dituzte beste batzuek... ez dira pentsatzen dutena esatera ausartzen.

Estitxu Zabala Odriozola

TXUPA BELTZA

Raul arropa-dendetako poltsekin agertu da etxean, iluntzean. Martak ezin du sinistu:

–Arropa eroatera joan zara?... Zu bakarrik?

Emaztearen ahotsaren trufa doinuaz ohartuta, Raulek ez dio erantzun; burua mugitu du goitik behera, besterik ez, eta aurrera egin du pasillotik.

–Aber? –Martak logelaraino jarraitu dio senarrari, jakin minez, eta marrazki bizidunak ikusten zegoen Unai atzetik segitu die, ortozik, pijama jantzita. Egoitz bere gelan dago, atea itxita, ordenagailuaren aurrean ziurrenez.

Raulek Martarekin batera erosi izan ditu beti arropak, beherapenetan gehienetan, eta batzuetan Martak erosi dizkio, berak joan beharrik gabe, Egoitz eta Unairi erosten dizkien bezala. Sekula ez da joan bakarrik. Ez da, baina, azken urtean Rauli igarri dion aldaketa bakarra. Etxe eta auzo berrian bizi direnetik bere buruari ezohiko atentzioa eskaintzen hasi da: bere janzerari, orrazkerari... Ikasle garaian erabiltzen zuen zilarrezko uztai txikia jarri du ezkerreko belarrian, eta aspaldian ile-apaindegira joan gabe, adats modukoa hazi zaio atzealdean, nobioak zirenean zuenaren antzekoa.

Raulek poltsak ohe gainean utzi eta berehala, Marta hauetan arakatzen hasi da.

–Bi kamiseta eta bi praka erosi ditut. Hain harrigarria al da? –galdetu dio Raulek, haserre.

–Baina nola erosi duzu S? Zuk gutxienez M behar duzu –Martak kamiseta bat zabaldu du eta bazterretatik tenka egin dio—. Eta letra horiek paparrean? Honek nerabeentzako arropa ematen du, Raul. Baina ze erosketa egin duzu?

–Nahikoa da, Marta... Utz nazazu bakean.

Une batez, senarrarekin ala seme nerabearekin hitz egiten ari ote den, zalantza izan du Martak. Zenbat aldiz entzun duen Egoitzen ahotsean *utz nazazu bakean* esaldia. Nahiko buruhauste eman die azken bi urteetan Egoitzek, bereziki etxez aldatu aurretik, aldaketaren kontra izan baitzen lehen unetik, ez baitzuen auzoko lagunengandik urrundu nahi. Mila aldiz azaldu diote aitak etxean estudioa jartzeko gela bat gehiago behar zutela. Raul argazkilaria da eta lan egiten zuen egunkaria itxi zutenetik bere kontura ari da, *free-lance* moduan.

Egoitzek hamazazpi urte ditu eta bere anai gazteak, Unaik, bost. Marta nazkatuta dago betiko komentarioarekin: zelako alde handia, ezta? Denek begiratzen diote Unairi deskuidu bat balitz bezala. Hain justu, Egoitz jaioberriari begiratzen zioten modura, hogeita hiru urterekin izan baitzuen, eta errukiz begiratzen baitzieten orduan ere hain gazte guraso bihurtuta ikustean. Duda barik, deskuiduek markatu dute Raul eta Martaren familia planifikazioa.

Honek eragina izan du lagunekin izan duten harremanetan. Martak eta Raulek bizitza sozial eskasa dute. Egoitz izan zutenean, kuadrillakoek ez zuten oraindik umerik eta, poliki, haiengandik urrundu ziren. Egoitz hazi eta laguntxoekin geratzen hasi zenean, askatasun pixka bat izango zutela pentsatu zuten eta aurreko bizitza eta lagunak errekuperatu ahal izango zituztela, baina Marta haurdun geratu zen berriz, eta berriz bueltatu ziren haien bizitzara fardelak, pure orbanak, zabuak eta txirristak, eta larunbat arratsaldetan zortzietarako etxera itzultzea.

Baina Unaik bost urte bete eta etxez aldatzearekin batera, leiho bat ireki da, antza, Raulentzat, etxe barrura ez ezik, kanpoko bizitzari begiratzeko aukera ematen diona. Eta Raulek berreskuratu duen bizi-gogoia ikusita, Marta atzean gelditzeko arriskuaz ohartzen hasi da. Senarraren gazte sentitzeko saiakera bakoitzari barre egiten dio berak, ozen gainera, argi gera dadin bera ez dagoela

kezkatuta, argi gera dadin gazte bihurtzeko saiakera patetikoa iruditzen zaiola, baina barrearen azpian Raulek egun batean fosil bati legez begiratuko dion beldurra ezkutatzen da. Sentipen hau barruan izan du azken urtean, baina ez dio izen eta abizenik ipini bere lagun Silviarekin ostegunero bezala kafea hartzera geratu den arte.

–Adi, Marta –ohartarazi dio Silviak, begiak zabal-zabalik–. Nire senarra ere horrela hasi zen...

Raulen transformazioaz aritu zaionean, Silviak kontatu dio bere senarra paparra depilatzen hasi zela, eta handik urte batera, nerabe moderno baten moduan jantzita agertu zitzaiola dibortzioa eskatuz. Azkenean mesedea egin ziola ere esan dio Silviak, hari esker emakumeak gustatzen zaizkiola deskubritu baitzuen eta ordutik bera baino hamabost urte gazteagoa den neska batekin bizi baita, baina bere kasuan, senarra mantendu nahi badu, adi egoteko ohartarazi dio.

Silviaren hitzek aspaldian buruan zuen puzzlea osatu dute. Eta mamuak ikusi ditu edonon. Berak farmazian duen ordutegiagatik oso gutxitan joaten da Unairen bila eskolara, eta ordu gutxi egiten ditu, Raulekin konparatuta, umearekin parkean. Eta eskolako irteeran, eta baita parkean ere, ia gehienak amak dira, eta denak bere senarra baino gazteagoak. Ama gazte ederren bat ezagututa sortu ote zaio senarrari gazte itxura berreskuratzeko behar hori?

–Kosta egiten zaie –esan dio Silviak–. Konturatzea, diot; zahartu direla onartzea. Eta neska gazteak bilatzen dituzte, horrekin gaztetuko balira bezala... Gaztetan entzuten zuen musika entzuten hasi da berriz, ezta?

–Ba, bai.

–Eta oraindik orduko musika urratzailea dela uste dute... Nire senarrak, azken hilabeteetan, pena ematen zuen zer eta Scorpions entzuten. Ezer zaharragorik... *Still loving you* ta guzti hori, badakizu.

–Ez, Rauli ez zaio inoiz heavya gustatu, baina *God save the queen* politonoa jarri dio mugikorrari.

–Ez dira konturatzen gaur Sex Pistols dentistaren itxarongelan jarri dezaketela lasai-lasai... Guretzat gurasoek entzuten zuten Maria Dolores Pradera bezalakoa da Sex Pistols gaurko gazteentzat. Klasiko bat.

Adin batera helduta, gizon guztiak patetikoak bihurtzen direla ziurtatu dio Silviak, kafetegitik presaka irten baino lehen. Bere nobia campusean zain zeukan.

Umea lokartu ondoren, afaltzera eseri dira sukaldean Marta eta Raul. Egoitz bere gelan dago. Ogitarteko bat eraman du bertan afaltzeko.

–The Curek Bilbon jotzen du, BBK Live-n –esan dio Raulek gazta zati bat mozten dagoela.

–Bai... Eta? –galdetu dio Martak.

–Zergatik ez goaz?

–Gu? Kontzertura?

–Bai, garai batean bezala. Noiztik ez gara kontzertu batera joan?

–Lagunak genituenetik? –erantzun dio Martak ironiaz, jogurtaren azken aztarnak jan bitartean.

–Ez dugu inor behar.

–Eta Unai?

–Zure amaren etxean utzi dezakegu...

Barre egiten dio, baina barruan zauritxo bat sentitzen du senarra hainbesteko gogoz ikustean. Parkean bera baino gazteagoak diren emakumez inguratuta egon eta gero, etxera heltzean berari botika zaharretan dauden pitxarren antza

hartuko ziola pentsatu du. Agian berak ere arropa berriak erosi beharko lituzke, edo orrazkera aldatu, gazteago sentitzeko, erakargarriago egoteko, beti baitarama ilea motots batean bilduta, erosotasunaren mesedetan. Agian ez da ideia txarra kontzertu horretara joatea. Agian bataio moduko bat izango da, bere garaian guztiz disfrutatu ezin izan zuten gazte-bizimodua berreskuratzeko.

Larunbat goizean, neguko arropak gorde eta udakoak ateratzen aritu denean, ohe gainean zabaldua utzitako arropen begira geratu da une batez. Eta minutu batzuen ondoren, bere amak jantziko lituzkeen arropak direla ebatzi du. Argi dago. Berak ere berritzea behar du, kanpotik eta barrutik.

–Lagunduko al didazu ganbarara? –galdetu dio Rauli, arropaz bete dituen bi poltsa erraldoiei begira.

Ganbaran, neguko arropentzako lekua egiten ari dela, Martak maleta zahar bat atera du.

–Zerbait egin beharko dugu arropa zahar hauekin –esan du, maleta barruan dauden aspaldiko jantziei begira.

–Hori nire txupa al da?

Begiak piztu zaizkio Rauli. Maletan dauden arropen artetik larruzko jaka beltz bat atera du, kremlera ugarikoa, rocker itxurakoa.

–Ez duzu hori jarri nahiko, ezta?

–Londrestik ekarri zidaten... Joder, nire txupa... Galduta nuela uste nuen.

Marta, Raul eta hirugarren pertsona baten lekua hartzen duen larruzko jaka igogailuan doaz, ganbaratik seigarren pisurako bidean, eta Marta doministikuka ari da, hautsak alergia ematen baitio. Maleta ere hartu du, etxean errebisatzeko asmoz, baina alergia jota, ez da arropa ateratzen ausartu eta balkoian utzi du. Ikusi du, baina, garai batean erabiltzen zituen larruzko prakak daudela barruan,

eta une batez bere burua imajinatu du praka haiek jantzita, dantzan, The Cure-ren kontzertuaz gozaten. Etxera sartu eta berehala probatu nahi izan du Raulek jaka, baina Martak ez dio utzi. Jaka egun batzuetan balkoian aireztatzen jarri beharko dutela esan dio, duen hauts eta ganbara hatsa kentzeko. Kostatu zaio Raul konbentzitzea, baina azkenean han geratu da jaka, pertxa batean eskegita balkoiaren erdian, arropak sikatzeko sokatik zintzilik.

Egoitz kalera irten da, norbaitek mezua bidali dio mugikorrera eta ezer esan gabe joan da.

–Hamaiketarako hemen! –egin dio oihu Martak atea itxi aurretik, nahiz eta azken hilabetean ezarritako ordua baino lehenago etortzen hasi den. Neskaren bat ezagutu duen susmoa du Martak, eta Egoitzek baino goizago bueltatu beharko duela neskak etxera. Ez du beste arrazoi posiblerik aurkitzen.

Egoitzen gelara sartu eta lurrean dauden arropak jasotzen hasi da. Praka bakeroetan orban handia duela konturatuta, garbigailura eraman ditu. Sartu baino lehen, poltsikoetan zerbait dagoen begiratu du, eta halako batean harritxo bat atera du, bolatxo bat. Haxixari begira hasperen egin eta Raulengana joan da. Ordenagailuaren aurrean dago, BBK Liveko web guneari begira.

–Raul...

–Radiohead ere badator, badakizu? –esan dio ordenagailutik bista altxatu gabe.

–Raul, begira –eskua luzatu du, eta haxixa erakutsi dio.

–Marta! Non lortu duzu hori? Noiz hasi zara erretzen berriz?

–Ez esan tontakeriarik. Zure semearen poltsikoan aurkitu dut.

–Aber? –Raulek esku artean hartu du film gardenez bilduta dagoen haxix zatia eta usaintzen hasi da–. Arrautza da, Marokoko karamelu bat.

–Zer egingo dugu?

Raul pentsakor gelditu da haxix zatiari begira.

–Erretzeko paperik ba al dugu?

Ordu erdi beranduago, etxeko balkoian daude Raul eta Marta, semeari aurkitutako haxixarekin egindako kanutoa erretzen.

–Ezin dut sinistu hau egiten ari garenik... –esan dio Martak Rauli honek eskaintzen dion kanutoa eskuan hartu aurretik.

–Benga, Marta, nahikoa da. Erre azkar, Egoitz agertu aurretik.

–Baina...

–Agian nahiago duzu Egoitz datorrenean sofán esertzeko eskatu eta “hitz egin behar dugu” esatea...

–Ez, mesedez.

–Ba erre orduan.

Martak zupada sakon bat eman dio kanutoari, segundo batzuk itxaron ditu eta beste atxiki bat eman dio, Rauli berriz pasatu aurretik. Zenbat urte burmuinean halako ukabilkada sentitu gabe. Hitzik gabe geratu da, eta bere aurrean eskegita dagoen Raulen jaka beltzari begiratu dio. Jaka hori jantzita zuela ezagutu zuen Raul. Beti eramaten zuen jaka itxita, armari bat balitz bezala. Tipo gogorra zen Raul. Kontzertu batean gogoratu du, lehen lerroan, burua aurrera eta atzera. Aspaldi ahaztua zuen Raul gaztea berpiztu da Martaren irudimenean, eta erakargarri egin zaio. Haren gazetako irudia buruan, senarrari begiratu eta irribarre egin dio. Raulek begiak txikituta ditu, eta ezin izan dio barreari eutsi. Barrez lehertu dira biak, elkarri begira, aspaldiko partez. Halako batean, hego haize ufada batek dantzan jarri du haien buruen gainean zintzilik dagoen jaka

beltza. Martari, bat batean, gaztetxe bateko okupazio bandera iruditu zaio. Lurralde berria okupatu balu bezala sentitu da.

Hurrengo goizean, ibuprofeno pastilla uraren laguntzaz irensten duen une berean, Egoitzen gelako atea entzun du Martak. Galtzontzilotan eta Berri txarrak-en kamiseta jantzita agertu da semea. Estu dabil praka bakeroen bila, baina ez du ezer galdetu. Balkoira irten eta eskegita dauden arropen artean arakatzen ibili da. Gero, berriz bueltatu da gelara, gosalduta gabe.

–Zer egin duzu harriarekin? –galdetu dio senarrak, ahopeka, esnatu eta gutxira.

–Gordeta daukat. Buelatuko diogu? Gelako lurrera botako dezaket, hara jausi dela pentsa dezan.

–Buelatatu? Ezta pentsatu ere. Aspaldian ez dut halako haxixa erre.

Hurrengo egunetan, gauero, Unai lokartu ondoren eta Egoitz agertu aurretik, balkoira irten dira Marta eta Raul, eta han kanuto bat erre, oraindik eskegita jarraitzen duen jaka beltzaren ondoan. Eguneko momenturik onena da. Kezka guztiak hegan doaz eta bat-batean ardura bakarra plazera sentitzea da. Gazteago sentitzen da Marta, eta Raul ere gazteago ikusten du. Eta gustuko du sabelean sentitzen duen kili-kili hori, gaztetan bihurrikeriaren bat egitean sentitzen zuen berbera.

Zazpi egun iraun die karameluak. Eta bat-batean, haxix gehiago lortzea hil edo biziko kontua bihurtu da Raul eta Martarentzat.

Klasean dagoela aprobetxatuta, Egoitzen gela arakatu du Raulek.

–Zerbait aurkitu duzu? –galdetu dio Martak, urduri.

–Ez, garbi dago –erantzun dio Raulek, polizia baten antzera.

–Neska hori da.

–Zer?

–Uste dut zure semeak nahiko droga duela maiteminduta egotearekin.

–Ez da egia izango... Porroak utziko zituen? –galdetu du kezkatu Raulek.

–Ez dakit ba...

Martak Rauli sorpresa ematea erabaki du. Hurrengo astean hamazazpi urte beteko dira ezkondu zirenetik. Afari berezi bat prestatuko dio, eta egun horretarako haxixa lortuko du. Silviak lortuko dio, bere nobia gaztearen bitartez, badaki erretzen duela eta. Raulek urteurrena gogoratuko duen, ez dauka argi, baina susmoa du BBK Liverako sarrerak oparituko dizkiola aurten urteurrena ospatzeko.

Heldu da eguna, larunbata da. Goizean, esnatzean, ez diote elkarri ezer esan. Arratsaldean ezkondu ziren, eta urtero arratsaldera arte itxaroten dute elkar zoriontzeko. Beraz, Raul etxean agertu arte ezingo du jakin urteurrena gogoratu duen ala ez.

Gaurko gaua berezia izatea nahi du Martak, eta benetan izango da berezia, biak bakarrik izango baitira etxean. Unai amonaren etxean egingo du lo, eta Egoitzek lagun baten herrira doala esan die, jaietara, eta haren etxean egingo dutela lo. Martak badaki gezurra dela, ezagutu duen neskarekin igaroko duela nonbaiten gaua, baina sekulako lasaitua hartu du bakarrik egongo direla jakitean. Bai, gaur larruzko prakak jantziko ditu, eta gaurko egunak bere berpizkundearen hasiera suposatuko du. Prest dago praka horiekin Kobetamendira igotzeko eta beltzez jantzitako gazteen artean galtzeko.

Kostata jantzi ditu, orduan baino askoz estuago geratzen baitzaizkio, eta duten ganbara hatsa kentzeko, balkoira irten da, galtzak jantzita. Han, oraindik zintzilik dagoen jakari begira, nobioak zirenean Rauli larruzko praka haiek zenbat gustatzen zitzaizkion gogoratu du, zoro baten moduan jartzen zela. Gaur ere berotuko da, aspaldiko partez. Gainera, afaltzen daudenean, beti motots batean bilduta daraman ilea askatu egingo duela erabaki du. Gaur Raulek ez du 41 urteko farmazeutikoa ikusi behar bere begien aurrean, Marta gaztea baizik, Marta erakargarri eta sexya. Bi gazte izango dira gaur, haxixa erretzen, barrez lehertzen, elkarri laztan egiten, larrua jotzen...

Mahaia prest, afaria prest, larruzko praketako poltsiko batean sartu du haxixa Martak Raul etxera sartu baino minutu bat lehenago. Sartu eta berehala, Raulek muxua eman dio ezpainetan. Aspaldian ez zuen egiten.

–Zorionak –esan dio gero, eta Marta lasaitu da, Raulek urteurrena gogoratu du.

–Afari berezia prestatu dut –esan dio Martak, urduri.

Mahaia egongelan prestatuta ikustean berriz eman dio muxu Raulek. Oraindik ez dio ezer esan prakei buruz. Agian melena askatzen duenean...

–Sorpresa bat dut zuretzat –esan dio Martak afaldu bitartean.

Bere asmoa, postrera heltzean, aulkitik jaiki, melena askatu, eta poltsikoan duen haxixa ateratzea da.

–Neuk ere bai zuretzat –esan dio Raulek.

Ez dute Egoitzi buruz hitz egin, ezta Unairi buruz, eta une batez Martari iruditu zaio ez dutela jakingo zertaz hitz egin. Ganba brotxetak ezin hobeak zeudela esan dio Raulek eskuak zapiarekin garbitu bitartean, eta izokina labetik ateratzean *ohhhh* luze bat bota du. Lehenengo zitan baleude bezala, urduri daude, zer esan jakin gabe. Bukatzen daudela, postrea zerbitzatu du Martak, xanpainez egindako

bi sorbete. Eta berriz aulkian eseri beharreen, Raulen albora inguratu da. Gerria haren begien aurrean jarri du, metro eskasera, Raulek behingoz prakak ezagutu ditzan, Raulek behingoz erreakzionatu dezan. Eta lortu duela iruditu zaio, halako batean, Raulek praketara begiratu baitio eta gerturatzeko eskatu.

–Etorri hona –esan dio, eta Marta sentsualki gerturatu da harengana.

Raulengandik zentimetro gutxira dagoenean, besoak altxatu ditu melena askatzeko asmoarekin, eta une horretan, Raulek paperean bildutako opari bat eskaini dio.

–Tori.

Ilea askatzen hasia zegoen, baina berriz bildu du motots batean, eta besoak jaitsi ditu oparia irekitzeko. CD bat da. Portada, BBK Liveko kartelaren kolorezko fotokopia bat da. Barruan sarrera bat aurkituko duela pentsatu du, baina barruan CD bat dago.

–Zer iruditzen? Hor dituzu denak. BBK Livera aurten etorriko diren talde guztiak, grabatuta, etxean goxo-goxo gozatu ditzazun, inolako mendira igo beharrik gabe, zapatak lokatzez zikindu gabe eta hotzik pasatu gabe... Den denak grabatu dizkizut: The Cure, Radiohead, Keane....

Marta CDari begira dago, burua jaikitzeke ausardiarik ez balu bezala.

–Eta gainera gure garaiko beste batzuk ere grabatu dizkizut –eta, ume baten moduan emozioz beterik, CDan idatzitako taldeen izenak irakurtzen hasi da–. Fugazzi, Faith no more, Soundgarden, Living Colour, Red Hot Chilli Peppers, The Who, The Jam, Bad brains, Jingo de lunch...

Martak marmarra baino ez du entzuten, farmazia jendez betetzen denean entzuten duen zurrunbiloaren antzekoa, Raul kristalezko manpara baten bestaldetik hitz egiten balego bezala. Azkenean, burua altxatzea lortu du, eta

begiradak balkoira egin dio ihes: han dago, bere begien aurrean, Raulen txupa beltza zintzilik, alde batetik bestera kulunka, urkatutako gorpu baten antzera.

Astelehen goizean Egoitzek ezin izan du sinistu nola agertu zaion berriz haxixa praketako poltsikoan.

KILKERRA

Espero baino lehenago bukatu duzue bilera. Hotelera heldu eta lepoa estutzen zizun gorbata askatu ondoren, ohe gainean etzan zara, zapatak kendu barik. Bihar goizean hartu behar duzu abioia. Ordura arte ez duzu ezer egin behar.

Bero egiten du hirian. Kaletik gorbata eta trajea jantzita ibili zara, submarinista neoprenoa jantzita urpetik bezala, eta neskak ikusi dituzu, tirantezko kamiseta eta gona laburrekin, arrainak bezain biluzik ia. Ez da bidezkoa, pentsatu duzu, abuztua izanik traje eta gorbataz jantzita ibili beharra, baina lana lana da, horrelakoa da negozioa. *Bussiness is business*, gaurko bileran italiarrei gogoratu diezun bezala. Eta trajearen barruan botatako izerdiak ere dirua balio du. Eskerrak hotelera sartu eta aire egokitua sentitu duzula. Topean jarri duzu zure gelan.

Seiak dira. Honezkero Amaia eta haurrek egingo zuten hondartzatik apartamenturako bidea. Aurtengo abuztuan ere apartamentu bera hartu duzue, baina ez duzu oraindik bertan lo egiteko aukerarik izan gau bakar batean ere. Lanak galarazi dizu. *Bussiness is bussiness*, badakizu. Oraintxe helduko ziren apartamentura, zapatilak hareaz beteta. Mirenen behatz txikien artean hondarra ikusten duzu, itsatsita. Amari esaten ari zaio ez sartzeko behatz artean toaila, kili-kilia egiten diola eta. Zapatak kendu dituzu. Milanen eginak dira, zauden hiritik nahiko gertu. Hain urrun egonda ere, Gorka eta Mirenen oihuak entzun ditzakezu, ez dute apartamentuko dutxara sartu nahi, eta Amaia haien atzetik ari da. Eskerrak apartamentua txikia dela, bestela nork harrapatu haurrak eta urpean sartu. Izerditan dago Amaia seme-alaben atzetik. Uraren zarata entzuten duzu. Ez da dutxakoa ordea, hoteleko aire egokituaren zirkuitukoa baizik.

Trajeko poltsikoan duzun telefono mugikorra dardarka hasi da, eta salto batean jaiki zara. Nagusia da, Bilbotik. Bilera ondo joan dela esan diozu, egina dagoela

tratua italiarrekin, eta zu bezalakorik ez dagoela erantzun dizu, pozez gainezka. Hartzeko bere partez whisky bat, edo grappa bat, merezi duzula eta.

Telefonoa entzun duzunean Amaia izan zitekeela pentsatu duzu, baina azken boladan ez dizu lehen beste deitzen, egunero hiru edo lau aldiz. *Heldu zara? Non zaude orain, hotelean? Haurrak ohean daude.* Ez duzu lehen bezala ahalik eta azkarren eten nahi izaten elkarrizketa, ez baitago ia elkarrizketarik. Dutxan sartuta ikusi duzu Gorka, eguzkiak belztuta. Amak bezalako azala du.

Hoteleko leihotik begiratu eta orube handi bat ikusi duzu, lur tontorrez beteta. Haur bat dago urrunean, belauniko, lur azpian dagoen zerbaiten bila bezala. Eta bat-batean zeure burua gogoratu duzu, mutil koskorra zinela, lurreko zuloan adar bat sartzen, kilkerraren bila. Kir-kir entzun duzu. Kir-kir. Hamaika kilker harrapatu dituzu haurra zinela. Kilkerra ahal zenuen moduan etxera eramane eta kristalezko ontzi batean sartzen zenuen letxuga orri batekin, eta aitak ardoaz bustitako ogi zatitxoa jartzen zion kir-kir egin zezan.

–Zergatik kantatzen du ardoarekin, aita?

–Kristalezko ontzi baten barruan bakarrik dagoela ahazten duelako. Horregatik hasten da kantatzen. Itxaron, entzun, laster hasiko da eta...

Ama gogoratu duzu, albotik pasa eta *kilker gizajoa* esaten.

Gelako telefonoa da orain zarataka hasi dena. Emakume bat zain duzula esan dizu harrerakoak. Zita bat zeneukala. Isilik geratu zara une batez, ia ahaztuta baitzeneukan italiarren ohitura. Behin tratua eginda, ez dute bezeroa bakarrik sentitzerik nahi, bezero ona bada behintzat, eta tradizioa da konpainia bidaltzea. Telefonoa belarrian, gelari begirada bat bota eta zapatak ikusi dituzu lur gainean botata, gorbata ohe gainean zabaldua... Ez duzu gogo gehiegi, baina igotzeko esan diozu.

Emakume beltzarana da ate aurrean agertu zaizuna. Ederra. Ile beltz luzeak bularra estaltzen dio. *Buona sera*, esan dizu zetazko ahotsarekin eta bere takoiek aurrera egin dute *klik-klak klik-klak* zure gelako lurraren gainetik, perfume usainarekin batera. Eskuineko eskuarekin atzerantz eramanez du ilea eta agerian utzi du bular sendoa, alkandora fin baten azpian. Titi punta nabari zaio, aire egokituak gogortua. Eskua bertara eramateko gogoa sentitu duzu, titi punta hura laztandu eta musukatzekoa, baina ez duzu egin. Zerbait hartu nahi duen galdetu diozu, eta ezetz erantzun dizu, ez duela edaten.

Ohe gainean eseri da. Ezkerraldeko ile xerloa ere atzera bota du eta orain bi titiak ikusi dituzu, alkandoraren azpitik zuri begira. Titietara begiratu diozula konturatuta, alkandora irekitzen hasi da, bularretako beltza agerian utziz. Bertara hurreratzean mugikorra ikusi duzu ohearen gainean eta hartu egin duzu beste lekuren batean uzteko. Pantailari begiratu eta gogoratu duzu duela urtebete behin eta berriz agertzen zela pantaila hartan Amaiaren izena, deika. *Hotelean zaude? Zer moduz bilera? Noiz bueltatu behar zara?* Eta gogoratu duzu askotan Parisen, Bolonian, Frankfurten, zeunden tokian zeundela, ez zeniola haren deiari erantzuten, eta zarata eginez uzten zenuela telefonoa. Eta gaur bezala ohe gainean zegoen emakume batek galdetzen zizula zergatik ez zenuen hartzen telefonoa, eta zuk erantzuten zeniola ez zenuela nagusiarekin hitz egiteko gogorik. Eta barrez erantzuten zizun emakumeak, eta alkandoratik egiten zizun tenka eta ohe gainera bota. Baina Amaiak ez du jada ia deitzen. Apartamentuko dutxan imajinatu duzu. Orain bera da dutxa hartzen ari dena. Biluzik dago, gorputza xaboiz beteta.

Amaiaren irudiak berotu egin zaitu eta ohe gainean dagoen emakumearengana hurbildu zara berriz. Hasieratik desio bezala, eskuarekin heldu diozu haren titiari eta, ondoren, haren gainean etzan zara. Bularretakoa askatu duenean oilo-ipurdia nabaritu diozu azalean. Hotza duen galdetu eta jaiki egin zara, aire

egokituaren potentzia jaisteko. Eta ohera bueltan zoazela, Amaia imajinatu duzu berriz, dutxatik irteten. Bikiniaren marka du, beltz-beltza dago. Haren azalak txokolatzkoa dirudi.

–Barkatu. Dei urgente bat egin behar dut... –esan diozu bat-batean ohe gainean etzanda dagoen emakume beltzaranari, eta komunera sartu zara mugikorra eskuetan.

–Amaia...

–Ander... zer moduz? Goiz deitzen duzu... Dena ondo?

–Bai, dena ondo. Non zaude?

–Apartamentuan. Hondartzatik bueltan. Eta zu?

–Hotelean. Bukatu dut bilera.

–A, ondo.

Haurren oihuak entzuten dira atzetik.

–Dena ondo beraz? –galdetu diozu.

–Bai.

–Bihar Bilbora bueltatzen naiz.

–Bai, esan zenidan. Eta gero Gironara joan behar duzu, ezta?

–Bai. Gironara, etzi. Dena ondo hortik?

–Bai, Ander, dena ondo... Barkatu baina utzi egin behar zaitut. Behetik deika ditut Sagrario eta Iñaki. Terraza batera goaz afaltzera hurrekin. Hemen egiten duen beroa...

–Bai, hemen ere...

–Bueno, Ander, bihar hitz egingo dugu, bai? Deitu mesedez heltzen zarenean Bilbora. Mugikorra eramango dut hondartzara. Muxu bat.

–Muxu bat.

Ohitu egin da. Zu gabe bizitzen ohitu egin dela pentsatu duzu, eta gaur arte sentitu ez duzun hutsunea nabaritu duzu sabela baino pixka bat gorago. Sabelaren eta biriken artean. Hortxe duzu hutsune moduko bat, min egiten dizuna. Gaur arte ez duzuna sekula sentitu. Ez dizkizu seme-alabak telefonoan jarri ere, lehen egiten zuen bezala.

Gelara bueltatu, eta beltzaranarekin batera etzan zara ohean. Kuleroa kentzeko eskatu diozu eta larrutan egin duzue. Indarrez aritu zara, amaierara ahalik eta azkarren heldu nahiko bazenu bezala. Eta bukatzean ez duzu ezer esan. Etzanda geratu zara, sabaira begira. Beltzarana zure inguruan kuzkurtu da eta eskua jarri du zure sabelaren eta biriken artean, hain justu hutsunea eta mina sentitzen dituzun lekuan. Kendu egin diozu eskua gainetik eta dutxara abiatu zara. Ezer esan barik. Ur jauziaren azpian zaudela, pentsatu duzu beltzarana afaltzera gonbidatu zenezakeela, agian zakarregia izan zarela berarekin, baina toaila gerrian lotuta gelara bueltatu zareneko, ez duzu bertan aurkitu. Alde egin du jada, bere lana bukatuta. *Bussiness is bussiness*, badakizu.

Jantzi eta tabernara jaitsi zara. Barraren aurrean zaudela, nagusiaren ahotsa gogoratu duzu, whisky bat edo grappa bat hartzeko esanez, merezi duzula eta. Whiskia eskatu duzu, *on the rocks*, eta kalera begira geratu zara. Kalera ematen duen leiho erraldoiak horma oso bat hartzen du. Beste aldean jendea ikusten duzu, alde batetik bestera. Neskak tirantezko kamisetak eta gona motzak jantzita. Abuztua da. Iluntzen ari da. Bero egiten du kanpoan. Barruan, aldiz, ia hotza ere egiten du, aire egokitua dela eta. *On the rocks* dagoena zu zarela pentsatu duzu. Orduan gogoratu duzu gelako leihotik ikusi duzun haur hura, orube handian

zegoena, belauniko, lur barruan zerbaiten bila bezala. Egin duzu ahalegina orubea ikusteko baina, iluntzen ari denez, ez duzu ezer ikusten piztu berri diren kaleko argietatik haratago. Saiatu zara, ahalegina egin duzu berriz, eta halako batean, ikusi duzu zerbait. Gizon bat da, taberna bateko barran dago, eskuetan edalontzi bat duela. Zure isla da, leihoak itzuli dizuna.

Biriken eta sabelaren arteko hutsunea sentitu duzu berriz eta irudi bat etorri zaizu burura: kristalezko ontzia, letxuga zatia eta ardoaz bustitako ogia. Trago batean edan duzu whiskya eta zain geratu zara, kilkerra noiz hasiko den abesten.

AZUKREZKO MADARITXUAK

Erizainak esku artean hartu du nire bularra eta kristalezko bandeja baten gainera jaurti du, kilo erdiko okela zatia balantzara botatzen den moduan. Auzoko harakina etorri zait burura. Gero eskuarekin estutu du kristalaren kontra, eta lisatzeko saiakera egin du, nire mamiak gela zurian zehar barreiatu nahiko balitu bezala, gainean plantxa antzeko bat jarri aurretik. Entziklopediak eta liburu mardulak ere zailak izaten dira fotokopiatzen, eta tapa jarri aurretik ondo zabaldu behar zaie bizkarra.

Ez eragin bizkarrari, esan dit, bere lankidearekin hitz egiten duen bitartean. Laneko afari batez ari dira, norbaitek gehiegi edan omen zuen. Aparatua topera jaitsi denean, bularrean presioa sentitu dudanean, begiratu ala ez pentsatu dut. Proba egin zidaten aurreko bietan ez nuen begiratu eta honetan ere ez nuen nahi, baina azkenean begiek ihes egin didate, eta damutu naiz, han ikusi baitut behin Fernandok, lankide baten ezkontzaren ondoren, mozkortuta, *azukrezko madaritxua* deitu zion bular bera, plantxan egindako sepia bihurtuta. Auzoko arrain-denda etorri zait gogora.

–Minik sentitzen al duzu? –galdetu dit erizainak, ez dakit ziur niri ala neure duintasunari.

Ezetz erantzun diot. Nire harrotasunak erantzun dio. Nire bularra horrela ikusteak lekuz kanpo utzi nau, kostako zait irenstea bularrean barizeak eduki daitezkeela. Nire gorputza emandako galtzerdi baten antzera ikusi ondoren, metro karratu bateko gelara bidali naute berriz, 2 zenbakia duen kabinara, eta han, lixibak horitutako bularretakoak jantzi bitartean, nire bularrak berriz *azukrezko madaritxuak* direla sentitzeko urgentzia sentitu dut, eta pentsatu dut horretarako bularretako berriak beharko ditudala bederen.

Handik zuzenean abiatu naiz Corte Inglesera, larri igo ditut eskailera mekanikoak, geldoegi doazela iruditu zait, eta munduko emakumerik sinple, arin eta azalekoena sentitu naiz une batez. Barregarri. Gaztetan, unibertsitate garaian, eta gero argialetxean lan egiten hasi nintzenean ere, bularrik gabeko emakumea banintz bezala bizi nintzen, nire intelektualitatea bi madari gordin haien gainetik zegoen eta hori guztia, eta hara noiz eta biguntzen hasi zaizkidanean hasten naizen, antsietateak jota, bularretako salbatzaile batzuen bila, nire bularren salbazioa hil ala biziko gauza balitz bezala.

Hirugarren solairuan, aldagelako ispiluan nire bularrak argi zuriaren pean ikusi ditudanean, zinez erreanimazioa behar dutela pentsatu dut, ahoz ahokoa gutxienez. Horregatik erosi dut parpaila eta zulo txo gehien zuen bularretako beltz bat, garestiena, aldagelaren pareta batean itsatsitako posterrak erakusten duenaren antzekoena. Emakume gazte eta eder bat ageri da han, bularretako beltzak, praka bakeroak eta botak jantzita, zaldi baten gainean, garaiko Bo Dereken antzera. Haizeak orrazten du haren adats beltza. *Vive salvajemente*, dio leloak. Aspaldi dago nire bizitza otzandua, pentsatu dut, aspaldi daude nire sexu harremanak programatuta larunbat gauetarako soilik, nire senarrak prestatzen dituen aplikazio informatikoak balira bezala. Eta, halako batean, aldagelatik irtetean, basati hitzaren esanahia gogoratzeko garaia heldu zaidala sentitu dut, eta harekin konbinatzen duen tanga ere jartzeko eskatu diot saltzaileari, pixka bat lotsatuta, bista salmahaitik gehiegi altxatu gabe.

Orain dela lau urte, lehen mamografia egin zidatenean, urduri, zerbait aurkituko zidatela pentsatuta, ezin izan nituen nire seme-alabak burutik kendu. Zer egingo zuten bere amaren babesik gabe. Gaurkoa hirugarren mamografia izan da eta lehenengotik dena aldatu da. Ohiko zerbait egitera doanaren jarrerarekin joan naiz, ez bakarrik adin batetik aurrera emakume guztiei egiten zaigun prebentzio

proba dela barneratu dudalako, baizik eta jada nire seme-alabak ez liratekeelako babesik gabe geratuko. Nire habia hutsik dago.

Eider oraindik etxean bizi da, baina egongo ez balitz ez nuke gehiago faltan igarriko. Ihes egiten dit, korridorean aurrez aurrez topo egiten badugu saihestu egiten nau, sukaldean nik afaria noiz bukatuko zain egoten da berea prestatzen hasteko. Bere ama mastekatzen entzuteak nazka ematen diola sentiarazten dit. Eta, hala izanda ere, ziur naiz nirekin erakusten duen hoztasunaren azpian ez dagoela gorrotorik, nire begietan ikusten duen bere buruaren irudia da errefusatzen duena. Bera nirekin ezin da bera izan, nire begietan ume baten irudiaren isla ikusten baitu etengabe. Azken boladan gertuago sentitzen dut Asier, nahiz eta iaztik bere neskarekin bizi den. Bisitan datorrenean zelan nagoen galdetzen dit, edo zerbait interesgarriarik argitaratu dugun argitaletxean.

Argitaletxean lan egin dudan urte guztietan nire familiako inork ez dit ezer galdetu lanari buruz, argitaratzen ditugun liburuei buruz, ezta nik idatzitakoei buruz ere. Editore lanak egitearekin batera, umeentzako ipuinak idazten nituen garai batean eta gauetz irakurtzen nizkien seme-alabei, baina sekula ez nien esaten nireak zirenik. Ez dakit zergatik, ipuinak benetako ipuinak zirela sinistarazi nahian agian, eta ez euren amak asmatutako zerbait. Gezur bat azken finean. Umeentzako gezurtxoak. Hori ziren Fernandorentzat idazten nituen ipuinak, eta, noski, ez zituen inoiz irakurri.

Asierrek eta Eiderrek gozaten zuten bada nire ipuinekin, euren gustukoenak ziren, agian haiek irakurtzean jartzen nuen gogo bereziagatik. Orduan ama gustatzen zitzaien, ama behar zuten. Gogoratzen dut Asierrek, hamabi edo hamahiru urte bete arte, beti behar ninduela alboan. *Ama, eseri hemen* esaten zidan, eta lekua egiten zidan sofan, afalorduan berarekin batera telebista ikusteko. Ez zion esaten nionari jaramonik egiten, baina han nengoela sentitzea

gustatzen zitzaion. Burua nire belaunetan jartzen zuen, eta nik, sukaldeko trapua esku batean, belarri atzera orrazten nizkion ileak beste eskuko atzamarrekin. Oraindik nire umetxo zen. Aldaketa egun batetik bestera gertatu zen, edo, hobeto esateko, egun batetik bestera konturatu nintzen aldaketaz. Horrela gertatzen da: egun batean bazoaz haren bila egongelara, eta kaleko atearen hotsa entzuten duzu. Zein jertse jantzi duen ere ez dakizula joan da, lagunekin bokata bat jatera. Orduan lurrera jausten zaizu eskuetatik sukaldeko trapua, eta berarekin batera lurperatzen dira oraindik eman nahi dizkiozun laztanak, muxuak kopetan, kaletik eskutik hartuta joatea, elkarrekin bidaiatzea, belakiarekin haren sorbalda igurztea baineran, zure semea biluzik ikustea... Egun batean ez dizu biluzik ikusten utziko, bere gelako atea itxiko du, eta hamaika metro karratuko gela hura jada ez da zure etxea izango, nahiz eta notarioaren eskriturek hala esan. Urteak eta urteak egin ditut seme-alabei begira, zelatatzen ia, eta ez naiz konturatu hazi egin direla. Agian gertuegitik begiratu diet. Bular bat mamografiak egiteko aparatu baten azpian ikustean ere berdin gertatzen da: hain gertutik bular bat ez da bular bat, beste gauza bat baizik.

Bakarrik bazkaldu dut. Bakarrik bazkaltzen dut, Fernando eta Eider hirurak arte ez baitira irteten lanetik eta institututik. Beraz, lasai nengoen, sardexkan sastatutako azalore aleak garun baten antz itzela duela pentsatuz, giltzen soinua entzun dudanean: Eider agertu da. Klasean egon behar luke. Zer egiten duzu hemen? Nirekin hitz egin nahi duela esan dit, aita ez dagoela aprobetxatuz, horregatik irten dela klasetik lehenago.

—Ama, bihar ez nator lo egitera.

—Eta nora zoaz?

—Olaiaren etxera, Arrasatera, kontzertu bat dago...

—... ba zuk ikusi.

Zuk ikusi, erantzun diot. Zuk ikusi. Eta hitz horiek ahoskatu bezain pronto harrituta geratu naiz neure buruarekin. Duela urtebete, edo gutxiago, duela hilabete ez nion inondik inora ere erantzun hori emango. Galdeketa egingo niokeen, eta ziurrenez ez niokeen baimenik emango, baina bihotzetik atera zait: Zuk ikusi. Gaur ospitalean ia zapaldu didaten bihotzetik. Mamografiaren aparatuak egindako presioak atera dizkit hitzok, antza. Zerbait aldatu da nire bularra zapalduta ikusi dudanetik. *Salvajemente* bizitzen hasi ote naiz?

–Ez zaizu inporta? –galdetu dit Eiderrek harrituta.

Eider bere gelara joan denean, lasta bota dudala sentitu dut. Urteak burua kezka beteta, asteburuetakoa gauetan lorik egin ezinda, alabaren zauri bakoitza neurea balitz bezala sentitzen, zauria ireki aurretik ere, eta bat-batean, eman diodan erantzunarekin iraganeko kontuak dira denak. Lasta botatzean, gorantz egin du nire gorputzak, zerurantz gasez beteriko puxika baten antzera, eta han goitik neure burua ikusi dut, eta begira zer ikusi dudana: ikusi dut mendikate handi bat eta haren gailurrean nire seme-alabak daude, baina haren alboan orain arte sekula ikusi ez dudana zerbait ikusi dut, zulo bat. Zulo sakon bat, mendikatea eraikitzeko haztakatu behar izan dudana. Zulo hori haztakatzen hustu naiz.

Zuloaz pentsatzen ari nintzen Fernandorekin afaldu bitartean.

–Zer ari zara pentsatzen? –galdetu dit.

–Biharko bazkariaz. Ez dakit zer jarri...

–Barka, segi pentsatzen.

Nire senarra, hain da edukazio onekoa... Ohean ere halakoa izan da beti, mugimendu bakoitzarekin batera mesedez esatea falta zaio bakarrik. Gure harremanak kolorea galdu du azken urteetan, marrazkirik gabeko ume ipuin bat bezala geratu arte. Inoiz alkohola edan duenean, orduan soilik galdu du

zuzentasuna: afariren batean, ezkontzaren batean... Ez du ia inoiz edaten, nahiko du basoerdi iparra galtzeko. Bere lankide baten ezkontzan hartu zuen inoiz hartu duen handienetakoa. Eta gau hartan, gau zoro hartan, larrua sekula aurretik ez bezala jo bitartean, nire bular biluziak hartu zituen bi eskuekin, eta *azukrezko madaritsuak* deitu ondoren, betaurrekoak kendu, ohe azpira bota, eta nire titiburuak miazkatzen hasi zen. Ez du sekula berriro egin, eskuekin laztandu bai, baina sekula ez dizkit berriro bularrak mingainarekin miazkatu, eta ez du berriro errepikatu azukrezko madariena. Esku zuriak ditu, bigunak, funtzionario baten eskuak. Aplikazio informatikoak egiten ditu administrazioarentzat. Bere lana gustatzen zaio, munduaren kaosa ordenatzen duela sentitzen du egunero: taulak, formularioak, datu baseak... Mimos tratatzen ditu, mereziko balute bezala.

–Inporta zaizu kanala aldatzen badut? –galdetu dit.

Batzuetan gustatuko litzaidake pixka bat bat-batekoagoa balitz, pixka bat naturalagoa. Batzuetan amesten dut izerdi usain artean larrua jotzen gabiltzala, larru gorritan biok, eta ez pijamaren goiko zatiarekin, edo pijamaren praken hanka bat bakarrik erantzita izterrak zabaldu ahal izateko. Eta berriz titiburuak miazkatzen dizkidala egiten dut amets, bere lankidearen ezkontzaren ondoren egin zidan bezala. Imajinatzen dut betaurrekoak ohe azpira botatzen, nahiz eta gaur ez lituzkeen betaurrekoak kenduko, lentillak erabiltzen ditu eta.

Zenbat larru-jotze geratzen zaizkidan galdetzen diot neure buruari. Zenbat zulo estaltzeko. Eta erositako bularretako beltzak gogoratu ditut. Platereko tortilla bukatu gabe utzi eta komunera abiatu naiz.

–Nora zoaz?

–Oraintxe nator.

Komunean, bularretako eta kulero zaharrak erantzi ditut, eta erosi berriak jantzi. Haginekin kendu diet etiketaren plastikozko zinta. Sukalderako bidean tanga

ipurtzulotik sartzen zaidala sentitu dut praken azpian. Ez nago ohituta bizitza basatira.

Ardo botila bat atera dut armairutik. Pasa den gabonetatik han gordeta zegoena. Fernandok harrituta begiratu dit:

–Zerbait ospatu behar dugu ala?

Nola azaldu behin bada ere neurri gabe jokatzeko ikusi nahi dudala, basati, nire gorputza bi eskuekin hartu dezan desiratzen nagoela, nire tanga hauek eskuaren teinkada batekin kentzen ikusteko? Gaur garrasi egin dezaket nahi izanez gero, Eider kanpoan da. Nola azaldu etorkizuna deformatutako bular batean ikusi dudanetik geratzen zaidanaz disfrutatzekeo erabakia hartu dudala? Eta beste guztia berdin zaidala?

–Bakarrik gaudela –erantzun diot–. Bakarrik gaudela ospatuko dugu, aspaldiko partez.

Ez dago edatera ohituta, eta, hartu dituen ardo kopa bien ondoren, eguneko hogeita lau orduetan erakusten duen zurruntasuna desagertzen hasi zaio. Gure garaiko gauzak gogoratu ditugu. Barre eta guzti egin dugu. Bat-batean pastazko betaurrekoekin gogoratu dut. Orduan, erlaxatuta dagoela aprobetxatuz, alkandorako botoiak askatu eta erantzi egin dut, bistan utziz zulo bordatuzko bularretako beltza. Zaldi baten gainean imajinatu dut neure burua.

–Aiba.

Geldirik geratu da, aho zabalik, nire bular mozorrotuei begira; une batez pentsatu dut administrazioko informatikariaren izpiritua bueltatuko zaiola, eta zer ari zara edo halako zerbait esango didala, ea mozkortuta nagoen, ala zoratuta. Baina ez. Irribarre egin du, eta aulkitik altxatu eta niregana hurbildu da. Bere eskuineko eskua, bere esku fina, ordenagailuaren saguari heltzen dion xamurtasunez jarri

du nire bularraren gainean. Dardarka sumatu dut. Bere ahoa gerturatu du nire belarrira eta haginka hasi da. Aurre-aurrean dut haren brageta, ireki diot eta eskua sartu. Ahal duen modura kendu ditu gainetik pintzadun prakak, hankekin, eskuak lanpetuta ditu. Nire ahora inguratu du berea eta gure mingainak banandu gabe egin dugu logelarako bidea.

Ohearen gainean etzan gara, bera nire gainean. Poliki, ahoa inguratu du nire bularretara, eta hara non ezkerreko titiburua miazkatzen hasi zaidan. Azukrezko madarien punta gogorra jarri zaidala sentitu dut. Ezin sinistuta nago, Fernando nire titiburua miazkatzen, bere lankidearen ezkontzaren ondorengo gau zoro hartan bezala. Tangak ezin du irentsi nire hanka arteko hezetasuna.

Orduan, bat-batean zerbait burura etorri izan balitzaio bezala, Fernandoren mingaina gelditu egin da eta burua altxatu du. Begira geratu zait. Badakit zer esango didan. Badakit azukrezko madarien ateraldia gogoratu duela. Barre egingo dugu.

–Akordatu zara, ezta? –esan diot irribarrez.

–Bai, barkatu, ez naiz lehenago gogoratu. Mamografia izan duzu ezta? Zelan?

Madariak bigundu egin dira bat-batean.

–Dena ondo –erantzun diot, sabaira begira.

Burua jaitsi du berriro eta nire zuloen bila hasi da, azal fineko esku zuriekin.

KARMELE JAIO

glass containers

Short Stories

Translations: Sarah Turtle, Aritz Branton

These stories were originally published in the following collections:

‘Zu bezain ahul’; ‘Ez naiz ni’.

Booktegi would like to thank Elkar publishers for its kind permission to republish these works.

FOREWORD

Three middle-aged couples. Characters who reflect on their lives until now, right now and in the future. Each couple has two children, their stories are different and readers go deep into each couple's life. Karmele Jaio narrates *Little Glacé Pears*, *Grasshopper* and *Black Leather Jacket* in three different ways.

In just a few pages the reader sees three families' lifestyles, and cannot help thinking about the issues brought up. Bringing children up is no easy task, nor is adapting to new circumstances, or a couple holding onto its excitement and sexual spark over the years. Some characters tell lies, other hide the truth or may not dare to say what they are thinking.

Estitxu Zabala Odriozola

BLACK LEATHER JACKET

Raul comes back home in the evening with carrier bags full of clothes. Marta can't believe it:

"You've gone to buy clothes... all by yourself?"

Realising from her voice that his wife is mocking him, Raul makes no answer; he nods his head, nothing more, and makes his way down the corridor.

"Let's have a look." Marta follows her husband into the bedroom, full of curiosity, and Unai, who had been watching cartoons, comes after them barefoot in his pyjamas. Egoitz is in his room, the door closed, probably in front of his computer.

